

“Eta orain zer?”

"Krisiak egun ekonomiari dakarkion dezelerazioa proiektu berritzaileen aldeko apustua eginda gaindi daiteke soilik, gazte adituak, ekintzaile berriak buru izanen dituzten proiektu berritzaileak, hain zuzen ere".

"... beno, horren gazte izan beharrik ere ez dago... beno, horren proiektu berri izan beharrik ere ez dago; esperientzia luzea izan dezakete... eta, ez dago horren aditu izan beharrik ere... beno, ideia bat, ilusioa, finantziarioa eta lanerako gogoia baino ez da behar!!"

Hain zuzen ere, edozein hedabidetan entzun nahiz irakur dezakegun lehen esaldiari "... onak" asko gehitzen ahal dizkiogu. Izan ere, ekintzaile-berri-eta-gazte-aise-kualifikatuak-eta negozio ideia on bat duenak, mundu errealean, enpresa bat abian paratzeak dakartzan ohiko zailtasunei aurre egin behar izaten die (bideragarritasun-planak, administrazio-kudeaketa, finantza-kudeaketa, merkatua, lehia), eta, horiez gain, esperientzia ezak sor ditzakeen hanka-sartzeak pairatu behar izaten ditu. Bestalde, ekintzaile batek ikuspegi berriak ematen ahal dizkio dagoeneko finkatutakoak dauden, merkatuan eskarmentu handiagoa duten, eta hala ere beren lehiakortasuna hobetuko duten proposamen berritzaileen bila dabiltzan negozioei, egungo egoera ekonomikoan bizirautea bermatze aldera.

Cederna Garalur Elkartearen eta Bidasoako bizirik iritziz, **beste modu batera egin daiteke eta egin behar da lan**, enpresa finkatuak eta ekintzaile berriak foro batean elkartuz, proposamenak eta esperientziak (onak eta txarrak) eta negozio-ideiak partekatzeak, eta hausnarketarako eta eztabaidarako gunea izateko. Negozio berriak lantzea ahalbidetuko duten giza gaitasuna eta gaitasun teknikoa, eta enpresa-ekimenei sostengua emateko instituzioek abian paratu dituzten sistemak erakutsiko dituen gunea.

"KEDADA ekintzailea Nafarroako Mendialdean" izeneko jardunaldia Cederna Garalur Elkarteak eta 'Bidasoako Bizirik' Txingudiko Badiaren Garapen Ekonomikorako Agentziak antolatuta dute. Nafarroako Gobernuak Landa Garapenerako Departamentuaren eta Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtzaren (LGENF) finantziarioa du 'LGP 2007-2013' programaren barnean, "Nafarroako Mendialdean enpresa-ekimena eta enpresa-proiektuak eta ETEentzako bestelako zerbitzu aitzinatuak sustatzeko plana" izeneko proiektuaren bidez.

HELBURUAK:

- Ekintzaileen talentua suspertzea.
- Gure eskualdeetan ekimen ekintzailea zabaltzea, baita interes handiko enpresa-proiektuak ere.
- Networking gunea bat eskaintzea, ekintzaileak hurbildu eta horien arteko harremana bultzatuko duena, baita ekintzaileen, gure eremuan finkaturik dagoen enpresa-ehunaren eta enpresa-ekimenean inplikaturik dauden bestelako eragileek eta erakundeek arteko harremana ere.
- Agorak, eta ekimen ekintzaileari, enpresei eta garapen-eragileei irekita egonen diren parte-hartzeko foroak sortu, esperientziak, iritziak eta negozioaren estrategiari buruzko funtsezko iritziak trukatzeko bultzatze aldera.
- Enpresa-ekimen berriak garatzera nahiz dagoeneko martxan diren enpresak finkatzera bideratutako zerbitzuak eta laguntzak ematea.

NORENTZAT:

Nagusiki, enpresa-proiektu bateko edo jarduera finkatze-fasean duten ekintzaileei, baita enpresa-ekimenarekin lotura duten enpresei, ikastetxeei, ekonomia- eta gizarte-eragileei ere.

METODOLOGIA

Jardunaldiari osoko bilkura batek emanen dio hasiera. Horretan, 1etik 10era, ekintzaile bat definitzen duten gaitasun eta ezaugarri pertsonalak aurkeztuko dira.

Jarraian, hiru enpresa-ekimen erreal ezagutuko ditugu. Hirurak, oso errealitate desberdinetatik abiatuta, beren enpresa sortzeko abenturan murgildu dira.

Osoko lehen saio horri amaiera emateko, Moderna Planaren Erronka aurkeztuko da, enpresa-ekimenaren ildoan.

Ondoren, jardunaldiaren bigarren zatia emanen zaio hasiera. Horretan, eta aldi berean, 4 lan-tailer garatuko dira; horietako hiru nagusiki sortze-bidean dauden negozioa finkatze-bidean dauden pertsonen bideratuta. Honako hauek izanen dituzte eztabaidagai: negozioaren estrategia; bezeroarengana iristeko enpresaren komunikazio- eta marketin-estrategia on bat edukitzearen garrantzia; eta kudeaketa ekonomiko eta finantzario on bat edukitzeak duen garrantzia, enpresaren arrakasta eta bideragarritasuna bermatze aldera. Laugarren tailerra enpresa-ekimenarekin, enpresekin, enpleguarekin... lotura duten ekonomia- eta gizarte-eragileek arteko hausnarketa-gunea izanen da, eta horretan gaur egungo egoera analizatzeko da: hausnarketa-tailerra; langabeziaren egoerari, enplegua sor dezaketen merkatu-hobieiei, lanbide-eskakizunen kalifikazioari, enpresa ekimenari sostengua emateari, eta abarri buruzkoa.

Jardunaldiari amaiera emateko, tailerretan ateratako emaitzak eta ondorioak aurkeztuko dira. Halaber, bertan diren enpresak eta sustatzaileak aurkeztuko dira, eta kontaktuak trukatzeko dira.